

TXOSTENA
ADI! HERRITARREN
PARTIZIPAZIORAKO EKIMENAREN
AKTIBITATEARI BURUZ

Natura Babesteko Legearen aldaketari buruzko
eztabaida bukatzean



Aurkibidea

Aktibitatearen laburpena	3
Orokortasunak.....	3
Prozesua	5
Partizipazio-datuak	7
Aktibitatearen balorazio orokorra	8
Sarrera.....	8
Konklusioak	8

Aktibitatearen laburpena

Orokortasunak

ADI!k berriro ekin dio aktibitateari X. legealdian, ezaugarri oso berezi batzuk dituen eztabaida batekin. Natura Babesteko Legearen aldaketarako lege-proposamena, zeina Arabako Biltzar Nagusiek aurkeztu baitzuten hidrokarburo ez-konbentzionalen arakaketa eta erauzketa eta apurketa hidraulikoa edo "fracking" a nagurgune babestuetan mugatze aldera, bat etorri da denboran gai berari buruz jarduteko tramitera onartua izan ez den herritarren ekimen legegilearekin.

Zirkunstantzia honek, dudarik gabe, animatu egin du partizipazioa eta erakutsi du oso baligarritzat ikusia izan dela ADI! erremintak herritarren ahotsa Ganberako ordezkariengana iriste aldera eskaintzen duen aukera. Baina zirkunstantzia horrek eragin du, baita ere, eztabaidak bi fronte oso markatu edukitzea. Alde batetik, eztabaidatu da proposamenaren edukiei buruz, hau da, teknika horien erabilerak dakartzan onurei eta kalteei buruz, eta beste alde batetik komentazio asko egin dira prozesu parlamentarioarekin eta herritarren ekimen legegilea tramitera onartua ez izanarekin lotuta.

Bi komentario-multzo handi bereizi ahal izan dira: alde batetik, fracking-teknikek naturan eta osasunean dauzkaten ondoriei buruzkoak, eta beste alde batetik, kontsumoaren murrizketa sustatzearen alternatibaren aurrean menpekotasun energetikoari eta energia-iturri propioak lortzea sustatu beharri buruzkoak.

Eztabaida honek sortu dituen komentarioen multzo osoa (2013ko apirilaren 3ra artekoa) dokumentu **erantsi** batean jaso dira, parlamentariak kontuan eduki ahal izan ditzaten aipatutako legearen zuzenketen prozesuaren barruan, **herritarren iritziak eta ekarpenak Legebiltzarrera helarazte aldera**, hori baita ekimenaren funtsezko helburua.

Beharrezkoa da nabarmentzea parte-hartzaileen ugaritasuna eta gaiak sortutako interesa. Horren froga da proposamen bozkatuenak 290 botoren babesia izan duela. Proposamen hori **9.a** da, **@FrackingEzAraba**, honako hau hain zuzen:



@FrackingEzAraba 12 de Marzo · 09:22h

Votos positivos: 290

Votos negativos: 0

Pasa den otsailaren 26an guztiok daukagun parte-hartzeko eskubidea urratu zuten, Fracking EZ Arabak aurkeztutako HELa atzera bota zutenean. Erabaki larri hau baretzeko, eztabaida honetan parte-hartzera gonbidatu gaituzte. Guk argi eta garbi daukagu. Fracking-a eta ez ohiko hidrokarburoen ustiaketa zein esplorazioa lurralde osoan debekatzea eskatzen dugu. <http://frackingezaraba.org/eu/2013/02/euskara-helaren-kontra-eta-frackingaren-alde/>

El pasado 26 de febrero se produjo una clara vulneración del derecho a la participación social negando la tramitación de la ILP presentada por Fracking EZ Araba. Para suavizar esta grave decisión nos invitan a participar este debate. Nosotr@s lo seguimos teniendo muy claro. Exigimos que se prohíba el fracking y la extracción y exploración de hidrocarburos no convencionales en todo el territorio.

<http://frackingezaraba.org/2013/02/euskara-helaren-kontra-eta-frackingaren-alde/>

Bestalde, proposamen horrek eragin du interbentzio gehien, 69 komentario deribatu lortuz. Hurrengoak boto-kopuruaren arabera dira **7.a, Ekologistak Martxan Arabarena**, 60 botorekin, eta **3.a, Otsoaren Taldearena**, 47 botorekin.

Azpitarratu beharreko beste eztabaida batzuk dira **3. proposamena, Otsoaren Taldearena**, 26 komentariorekin; **101, 95 eta 93.ak, Josebarenak**, hurrenez hurren 28, 14 eta 11 botorekin, eta **7.a, Ekologistak Martxan Arabarena**, eta **6.a, Valentín Gilena**, 10na botorekin.

Erabiltzaile bereziki aktiboak 6 izan dira, proposamen edo komentario gisa egindako ekarpen-kopuruetatik nabarmendu direnak:


Erabiltzailea	Proposamena	Komentarioak	Guztira
Iñaki Iturritza	1	51	52
Joseba	5	24	29
Otsoaren Taldea	4	17	21
Iker Gómez	1	15	16
Vier	2	7	9
Egoitz Llano	7	-	7

Prozesua

Behin berretsi ondoren eztabaida hau hautatzen zela ADI!k bere aktibitateari berriro ekiteko, argitalpena martxoaren 8an egin zen, prestatu eta balidatu ondoren dokumentazioa, testu deskriptiboak, dinamizazio-kestioak eta plataformaren hobekuntzak eta egokitzapenak.

Horrekin guztiarekin, partizipazioa suspergarri ikaragarri bat izan da erremintarentzat, bai eta erremintaren kontsolidaziorako ere, zeren hazten ari zen arren poliki-poliki, moteltze bat izan batzuen hasierako bultzadaren ondoren. Orain, aldiz, erregistratutako erabiltzaileen kopurua, hiru hilabete baino gutxiagoan, ia hiru bider handiagoa izatera pasatu da, aktibitatean 15 hilabete baino gehiago egin ondoren.

Erabilera-kurbak pentsarazten du ezen eztabaidarako hasierako epea, prozedura parlamentarioek baldintzatua, motza zela, eta epearen luzapena gehigarri nahikoa izan da. Ikusten da aktibitatea oso intentsoa izan dela, bi tontor izan dituelarik martxoaren 12-13an eta 18an, baina itxiera-datan aktibitatea nabarmenki moteltzen zihoan jada, Aste Santuko jaien eraginagatik dudarik gabe. Kontuan izanik Interneteko ohiko dinamikak eta bertako aktibitateen bizitza-zikloak, ondorioztatu daiteke emaitza oso asebetegarria dela.



ADI!ren bilakaeran ezarritako joerari jarraituz, dinamizazio-estrategiaren oinarria izan da eztabaida plataformara erakartzea, sare sozialak erabiliz iragarpen eta zabalkunde modura, baina ez hainbeste partizipazio-gune modura. Horrek posible egiten du ekarpenen jarraipen sinpleagoa eta fokalizatuagoa egitea eta horrekin efizientzia eta baliagarritasun handiagoa izatea. Beharrezkoa da azpimarratzea ezen "adi fracking"en bilaketak 3.140 emaitza ateratzen dituela Googleen Facebooken gunean, 542 Twitterren eta 892.000 sare osoan ("adi" hitza gehitzeak, nahiz ez hitz hori ez den pribatiboa, ideia on bat ematen digu ekimen honen ikusgarritasunari buruz).

Trafikoaren jatorriak aldaketa garrantzitsu bat izan du, zeren bisitarien ia erdia (% 43,63) "kanpain"etatik baitator, hau da, gonbitetako eta harpidetzetako emailen esteketatik. Honek bi irakurketa ditu: alde batetik, erakusten du asmatu egin dela kolektiboan hautaketan eta erantzuna igarri egiten dela kolektibo horien identifikazioa zuzena denean, eta beste alde batetik, agertzen du ezen sartutako fidelizazio-erremintak eraginkorrak gertatu direla eztabaida mantentzeko.

Zuzeneko trafikoa %30 izateak, bestalde, erakusten digu fidelizazio-oinarri on bat dagoela.



6,64% Bilaketako trafikoa
20,20% Erreferentziako trafikoa
29,54% Zuzeneko trafikoa
43,63% Kanpainak

Datuak kasu honetan oso adierazgarriak dira. Eztabaida hasi baino lehen 273 erabiltzaile zeuden erregistratuta, eta eztabaidaren itxiera-datan 789 zeuden, 27 eguneko aktibitatearen ostean. Horietako 381k partizipazio aktiboa eduki dute, 305 ekarpenekin (111 proposamen eta 194 komentario) eta 911 botorekin, eta horrez gainera aberastu egin dute eztabaida, informazio osagarria emanez kanpoko informazio-iturrietarako estekak jarrita. Askogatik gainditu dira aurreko eztabaida guztietako datuak, eta hori interpretatu beharko litzateke erremintaren berrindaketa gisa eta erremintaren baliagarritasunaren islada gisa, horrekin batera aipatu behar delarik hizpide zen gaiaren beraren interesa.

Eztabaidaren orrira egindako bisiten azterketak erakusten du, orobat, erremintak bultzada bat jaso duela aurreko aktibitatearen aldean. 2011ko azaroaren 29tik 2013ko martxoaren 7ra jasotako bisitak, guztira, 9.121 izan ziren, banatuta mahaigaineko bertsioaren artean (7.162) eta mugikorren artean (959). Aldiz, martxoaren 8tik apirilaren 3ra arteko bisitak 3.812 izan dira (orain denak bilduta nabigazio unibertsaleko bertsio bakarrean).

Erremintaren egokitze ta hobetze etengabeak posible egiten du erabilera lagunkoiagoa egitea, eta horrek islada du partizipazioan eta zabalkundean. Aktibitatearen berrekitze honetan, esan denez, terminal-mota orotara egokitutako nabigazio-teknologia sartu da, dispositibo mugikorretarako bertsioa bat eginez mahaigaineko bertsioarekin eta funtzionalitateak hobetuz; hobetu egin dira dokumentu asoziatuak bistartzeko erremintak, inplementatu egin da sare sozial gehiagorekin ere partekatze aukera ("g+"), eta aktibitatea legealdika filtratzeko aukera sartu da. Hori guztia etengabeko hobekuntzaren estrategiaren barruan, zeina aplikatzen baitu garatzaileak Eusko Legebiltzarrarekin ezarritako lankidetzaren markoan.

Berriro azpimarratzekoa da herritarrek erakutsi duten portaera konstruktibo eta zibikoa, agertu baitute benetako interesa daukatela zuzenean parte hartzeko bidez politikoan eta Legebiltzarraren erabaki-hartzean. Benetan nabarmendu beharrekoa da maila altuko eztabaidatzat jo genezakeen honetan aportatu den informazioaren kalitatea eta sakontasuna. Datu hau suspergarri bat izan behar da erreminta hau eta beste batzuk garatzeko, denen gaitetiko ordezkaritza-instituzio honetara herritarrak hurbiltze aldera.

Intzidentzia bakar bat gertatu da: komentario bat desargitaratu egin da, ezarritako arauak ez betetzeagatik. Kasu honetan egileak berak espresuki adierazi zuen bere ekarpenak ez zuela zerikusirik eztabaidako gaiarekin.

Partizipazio-datuak

GUZTIRA

Natura Babesteko Legearen aldaketari buruzko eztabaidaren aktibitatearen laburpenean, partizipazio-zifra hauek izan dira:

Aktibitate-egunak: 27

Parte-hartzaile aktiboak guztira: 381

Ekarpenak eta komentarioak: 305 (111 proposamen eta 194 komentario)

Botoak: 911

Erregistratutako erabiltzaileak: 789 (kontatu gabe FBeko 1.452 jarraitzaileak eta Twitter 29ak)

Bisitak: 12.933 (soilik webean). 3.812 azkenengo debategan.

Aktibitatearen balorazio orokorra

Sarrera

Eztabaida honetan sortutako aktibitate handiaren arrazoia, jasotako komentarioen arabera, dira neurri handi batean lege-proposamenaren gaiari buruzko sentiberatasuna, herritarren ekimen legegilea tramitera onartu ez izana gai berari buruz jarduteagatik, fidelizazio-erremintak hobetu izana, eta parte hartzera gonbidatuen hautaketa egokia egitea.

Plataforma instituzional bat zelarik, masa kritiko oso garrantzitsu bat lortu da. Oso eskertzekoa da herritarren erantzuna, eta egoera honetan oso garrantzitsua da instituzioak, bere aldetik, erantzun egoki bat ematea, benetan balioan jarriz herritarren ahotsa Ganberara hurbildu izana (gogora dezagun ezen ADI! herritarren partizipaziorako proiektua sortu zela herritarrak prozesu parlamentaria hurbiltzeko, eta alderantziz). Instituzioak eduki behar duen **konpromisoa**, balio diferentziala eskaintzeko eta ondorioz herritarrak zeduzitzeko asmoz luzatu behar dena, da helaraztea parlamentariei herritarren ekarpenak, kontuan hartu ahal izan ditzaten, horrela **zuzeneko komunikazio-hari** bat ezarriz bi aldean artean.

Konklusioak

Iritsitako egoera eta lortutako emaitzak abiapuntutzat hartuz, gure balorazioa da erreminta kontsolidatu eta hazi egin dela, datu hauetan oinarrituta.

- **Partizipazio-datuek gainditu egiten dute, gaur ere, antzeko ekimenekin egin daitekeen alderaketa oro.**
- Urrundu egin dira zalantzak erabiltzaileen **erantzun zibikoari** buruz eta beraien espiritu konstruktibo eta aportatzaileari buruz.
- Sendotu egin da plataforma herritarrek legegintza-prozesuan modu paraleloan parte hartzea bideratzeko erreminta gisa.